Sei urtetik gora daramatzat Madrilera joan-etorriak eginez. Baina azken hamar hilabeteotan bertan bizi naiz. Madrilen agentzien bidez hainbat lantxo egin ditut. Azkena Jose Manuel Paradarekin.

**I Diskorik grabatzeko intentziorik ba al duzu?**

Asmo hori daukat, baina oso zaila da. Kontaktu eta lagun asko eduki behar dira. Telebistak horretarako aukera zabaldu dit. Aurrez disko bat grabatzeko proiektu batean sartu nintzen, baina ez zuen aurrera egin. Hala ere, ez dut esperantza **galdu.**

**I Zein abeslari miresten duzu?**

**Lehen asko nituen gogoko.** Baina telebista barruan konturatu naiz ez daukadala idolorik. Beti izan naiz Isabel Pantojaren jarraitzaile, nire ametsa berarekin kantatzea zen, eta koroak egin nizkionez bete nuen ametsa. Horrelako jendearekin abesteak esperientzia ematen du.

**"BETI IZAN NAIZ ISABEL PANTOJAREN JARRAITZAILEA. KOROAK EGIN NIZKIONEAN BERAREKIN ABESTEKO NUEN AMETSA BETE NUEN"**



*Nathalia Mallado eta Isabel Pantoja*

**Zer da abestea zuretzat, afizioa ala ofizioa?**

Ofizioa, betidanik barruan eraman izan dut abeslari izateko nahi hori. Orain abeslaria naiz, eta izaten jarraituko dut, Jainkoak nahi badu behintzat.

**I Bakarrik ala musikaz lagunduta nahiago duzu kantatzea?**

Orkestra batekin kantatzea gustatuko litzaidake. Orain telebistan ez ezik, Madrilen, beste leku batean ere abesten dut. Gauero kortijo batean, pianoz lagunduta, ikuskizun bat egiten dut beste bi mutilekin. Gainera, jende ezaguna joaten da bertara: Maria Dolores Pradera, Maria Jimenez...

**Epe laburrera begira, zein asmo duzu?**

Rocio Juradorekin bira bat egingo dut udan, koroetan parte hartzen. Epe luzera, berriz, bakarlari moduan aritzeko aukera izatea da nire proiektu nagusia.

**I Elgoibarren kantu eta dantza ikuskizun arrakastatsua eskaini zenuen. Ba aI duzu beste saioren bat egiteko asmorik?**

Ikuskizun bat prestatzen ari nintzen, baina TVEko eskaintza etorri zitzaidan eta ezin izan nuen beste saiorik egin. Elgoibartarrei askot eskertu behar diet, lagundu didaten batzuk badira, eta aukera hau aprobetxatu nahi nuke_beraiei eskerrak emateko .

*ELGOIBARREN, GALIZA ETXEKO TUNAN EMAN ZITUEN KANTAGI1VTZAKO LEHEN PAUSOAK. ANGELA ZABALETAREKIN KANTU IKASKETAK EGIN ZITUEN GERO. OSO GAZTEA ZELA HASI ZUEN KANTU IBILBIDEA. TELEBISTAKO PROGRAMETAN LEHIAKIDE IZATETIK AURICEZLE LAGUNTZAHE IZATERA EDO KORUETAKO PARTAIDE LANETAN ARITZERA PASA DA. HORRETARAKO MADRILERA BIDERATU ZUEN AHOTSA. BERTAN, RAFAEL RABAY DU ZUZENDARI ARITSTIKO.TZAT. ISABEL PANTOJAREN, LOS DEL RIOKOE1V, RAPHAELEN... ZUZENDARI ARTISTIKOA ERE BADA. JOSE MANUEL PARADAREN "AMIGOS EN LA NOCHE " SAIOAN IKUSI AHAL IZAN DUTE ZALEEK DUELA GUTXI KANTUA1V. GUREGANA KANTUZ EZ BADA ERE HIZKETARAKO GOGOZ AZALDU DA.*

# Nathalia Meliado

## "Udan Rocío Juradorek

**Nola hasi zinen kantuaren munduan?**

10 urte-edo nituela Galiza Etxeko tunan hasi nintzen. Emanaldien ostean abesten nuen eta jendeak piskanaka ezagutu ninduen. Ondoren, bakarrik kantatzeko erabakia hartu nuen.

**I Zein kantu mota abesten dituzu?**

Pop erako abestiak. Koplarekin hasi nintzen, baina gaur egun aurrera ateratzeko eta norbere burua ezagutzera emateko komertziala den zerbait egin behar da. Niri sentimenduz kantatu daitekeen edozer gustatzen zait.

**Telebistan sarritan ikusi zaitugu.**

17 urterekin Maria Teresa Camposen "Pasa Ia vida" saioan izan nintzen TVEn. Gero Telecincoko "El Trampolin" programan. Euskal Telebistan "Izar Bila"-n eta "La Primera Noche"-n lehiakide moduan hartu nuen parte, eta bigarrenean irabazle izan nintzen.

**"ETBN FAMILIA ETA LAGUN GIROA DAGO. MADRILEN BAKOITZAK BERE KASA DABIL ETA AURRERA EGITEKO GOGORRA IZAN BEHAR DA"**



**I Eta ondoren saioan lan egiteko kontratatu zintuzten, ezta?**

Bai, programan hartu ninduten eta uste dut hau izan dela telebistako esperientziarik onenetarikoa. Gero, Jose Manuel Paradarekin hiru gala egin nituen eta Telecincoko "Siete Vidas" telesailean ere hartu nuen parte. Raphaelen zuzeneko batean koroak egiten ere aritu nintzen, eta orain, Paradarekin dihardut lanean "Amigos en la noche" saioan.

**I Zein izan da telebistako esperientziarik gogokoena?**

Saio bakoitzak bere gauza onak eta txarrak ditu. Denetatik piska bat probatzea da esperientzia eman didana. Hala ere, ETBn protagonismo handiagoa nuen. Kantatzeaz gain, lehiakideei probak egin nizkien eta horrek aukerak zabaldu dizkit, nire burua gorago ikusteko posibilitatea eskaini dit. Profesionalki ez ezik maila pertsonalean ere gauza asko erakutsi dizkit telebistak. Mundu hau oso zaila dela ere ikusarazi dit.

2001ko uztaila/VIII. urtea/370. zkia

# Barren

ASTEKARIA

# elkarrizketa



TELEBISTAN AGERTUZ GERO, FAMATU EGITEN OMEN DA BAT. AZKEN ALDIAN PANTAILA TXIKITIK SARRITAN SARTU IZAN DA NATHALIA MELLADO GURE ETXEETARA. NESKA ELGOIBARTAR HONEK 25 URTE DITU ETA KANTUTIK BERE BIZIMODUA EGITEA ERABAKI DU. MADR1LEN FINKATU DU BIZILEKUA, BAINA EZ DU ELGOIBAR AHAZTU. TARTEKA EGITEN DU BISITA BERE JAIOTERR1RA ETA HORIETAKO BATEAN BERAREKIN H1ZKETAN JARDUN GARA.

## Nothalia Mellado

DISKO BAT GRABATZEKO KONTAKTU ETA LAGUN ASKO EDUKI BEHAR. DIRA"

## Farmazia okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Bidasolo | Bidasolo |
| 9 | Ebteberria {Santa Ana katean} | Etxeberria |
| 1 o | Fernandez | Fernandez |
| 11 | Bidasolo | Bidasolo |
| 12 | Zabaleta | Zabaleta |
| 13 | Eixeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |

FARMAZIAK

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel. 943 75 61 42

**ZABAIITA,** Kaleburren, 9 Soraluze
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
8 igandeo Doria Mercedes


# MIETXEBERRIMI

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



**NORBANAKOEI eta KONPAINIET zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia** eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01


## E1101,0,

### JAIOTAKOM

**Javier Castro Caballero**
**Ekainak 2**
**Joarte Iriondo Fernandez**
**Ekainak 4**
**Paula Oregi Etxabe**
**Ekainak 11**
**Nerea Rodriguez Lizundia**
**Ekainak 22**
**Iñigo Elustondo Mateo**
**Ekainak 25**
**Josu AIvarez Arriola**
Ekainak 26

### EZKONTZAK

**Igor Esnaola Casado** eta
**Ana Urbiola Arriola** (Ekainak 2)

**Iñaki Galdos Landa eta**
**Nerea Urbieta Valenciano** (Ekainak 2)

**J.Manuel Saceda Formoso** eta
**Nerea Odria Soraluce** (Ekainak 9)

**Fco. Javier Alonso Diez** eta
**M. Pilar Agea Baron** (Ekainak 9)

**J. Ignacio Luque Terroba** eta
M. **Sol Colmenero Vela** (Ekainak 30)

**Angel Romero Salmon** eta **Betsabe**
**Etxeberria Lizardi** (Ekainak 30)

**Victor M. Godoy Jaen** eta
Rosa Maria **Gomez Mata** (Ekainak 30)

### HILDAKOAK

**Saturnino Inza Gorrotxategi**
92 urte, ekainak 1
**Juanita Garcia Garate**
89 urte, ekainak **5**
**Purificackin Goenaga**
70 urte, ekainak 5
**Agustin Alberdi Agirrezabala**
69 urte, ekainak **10**
**Isabel Goenaga Berasategi**
84 urte, ekainak 10
**Eduardo Arriola Albizu**
76 urte, ekainak 14
**Julian de Marcos Rodriguez**
74 urte, ekainak 16
**Pedro Ruiz Camino**
47 urte, ekainak **17**
**Pablo Nebreda Martinez**
**85** urte, ekainak 20

## Giro onean eta jende askorekin ospatu dituzte San Pedro ballarako jaiak





Joan den ostiralean izan zen San Pedro Eguna, eta izen bereko bailaran jai giroa izan da nagusi asteburuan. Ostiral eguerdian San Pedrora joan zirenek, trikiti doinua lagun, prozesioaren eta mezaren ostean, mokadutxo bat jateko aukera izan zuten, Umeek hartu zuten protagonismoa larunbat arratsaldean. Gauez, berriz, 100 lagun elkartu ziren bertso afarian. Bertsoz ase ondoren bolatokian izan zen nahikoa giro, gau guztian tiraldiak egon baitziren bertan. Larunbateko parrandari eutsi zionik egon zen eta igandean zaldi lasterketa ikustera jende asko inguratu zen. Jaiak amaitzeko, zozketa egin zuten, eta antolatzaileek 1.267 zenbakiaren jabeari saria jasotzeko hamabost eguneko epea duela jakinarazi nahi diote, bestela 2.376 zenbakia duena egingo baita jakiez betetako karretilaren jabe.



## Euskal presoen eskuhideen aldeko 111. martxa ibittaria larunbat goizean pasa zen Elgoibartik

Debabarreneko Aministiaren Aldeko Batzordeak antolatuta euskal presoen eskubideen aldeko martxa ibiltaria egin zen joan den larunbatean, ekainaren 30ean. 8:30ean Ermuan abiatu eta Eibar eta Maltzaga pasatu ondoren, 11:00k aldera iritsi ziren oinezkoak Elgoibarrera. Plaza Handian hamaiketakoa egin eta Mendaro eta Sasiolan zehar, Debara heldu zen manifestazioa "Amnistia. Euskal presoen eskubideen alde" lemapean. Bertan ekitaldia eta bazkaria egin zituzten. Debaharrenean guztira 22 preso eta errefuxiatu daude, horietatik 4 elgoibartarrak: Mikel Alberdi (Dueso), Iftaki Jaio (Huesca), Iflaki Iriondo (Caceres II) eta J. Mari Mendizabal (Valdemoro).

## San Ferminetako entzierroak Kultur Etxean ikusi ahal izango dira uztallaren 7tik 14ra bitartean

San Ferminetara joateko aukerarik ez dutenentzat edo zezenak urrutitik ikustea nahiago dutenentzat pantaila handia jarriko dute Kultur Etxean. Uztailaren 7tik 14ra bitartean, goizero, 8:00etan, eztzierroak zuzenean botako dituzte Hitzaldi Gelan.

## Elgoiharko lau dantzari gaztek Gipuzkoako aurresku ligaxkan hartu dute parte

Inazio Bereziartua Musika Eskolako lau dantzarik Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatutako aurresku ligaxkan hartu dute parte. Adrian Chieok, Iker Izetak, Mikel Arosak eta Unai Cabok Gipuzkoako bost herritan jokatutako kanporaketetan egin zuten dantzan. Finala Oreretan izan zen maiatzaren 19an eta Mikel Arosak eta Unai Cabok finalean dantzarako duten trebezia azaldu ahal izan zuten. Zorionak dantzariei . egindako Ianarengatik eta erakutsitako maila onarengatik.



# 199 gaztek eta umek eman dute izena Gaz-T eta Atxutxiamaikaren udalekuetan

## TopaguneareKin elkarlanean antolatu dituzte Elgoibartik kanpoko udalekuak





*Txikienek udaleku irekietan eman dute izena eta herrian antolatutako ekintzetan hartzen dute parte. Gaztetxoek, berriz, etxetik kanpo egingo dituzte egonaldiak.*

Haur Hezkuntzatik hasi eta DBHko 4. mailara arteko 169 haurrek eta gaztek eman dute izena Atxutxiamaikaren eta Gaz-T taldearen udalekuetan parte hartzeko. Astelehenean eman zieten hasiera gehienek udako kanpainari eta uztailean zehar hainbat ekintza egingo dira. Txikienak goizetan elkartuko dira eta, besteak beste, mendira zein hondartzara irteerak eta tailerrak antolatu dituzte beraientzat. Gaur, ostirala, goizean, San Fermin Txiki ospatu dute entzierro eta guzti. Bestalde, Aubixara doazenek ere izango dute non gozatua Lasarte eta Durangoko haurrekin batera.

**Elgoibartik kanpo**

Baina badira Elgoibartik kanpora joango direnak ere. Topagunearekin elkarlanean hainbat egonaldi antolatu dituzte Atxutxiamaikak eta Gaz-T taldeak. Uztailaren lehenengo hamabostaldian Lizarrara, Urdirotzera eta Angostora joango dira batzuk. Bigarren hamabostaldia, berriz, Elgoibarko14 gaztek Ubidean pasatuko dute.

Antolatzaileak pozik azaldu dira eskaintzak erantzun ona izan duelako. Orain prestatutako ekintzak ahalik eta ondoen ateratzea eta haurrek eta gaztetxoek lagun berriak eginez udaz gozatzea da beraien helburua.

# Gestio Eskolak zuzendarMa programa jarri du martxan

## ESCP-EAP negozio eskolarekin batera, euskal enpresak nazioarteko lehiaraKo prestatzea du helburu

Gestio Eskolak eta ESCP-EAP negozio eskolak hitzarmen bat sinatu dute zuzendaritzako programa bat martxan jartzeko. Zuzendarientzat, zuzendaritza karguak izan eta bere jakintzak hobetu nahi dituztenentzat eta lizentziatuentzat izango da programa. Management tresnak ezagutaraztea, enpresaren egitura funtzionala irakastea eta zuzendariak aldaketetarako prestatzea dira ikastaroaren helburuak. Guztira 250 orduko iraupena izango du eta eskolak urrian hasi eta datorren urteko ekainera arte luzatuko dira.



*Joan den ostiralean aurkeztu zuten programa bi ikastetxeetako arduradunek eta Elgoibarko alkateak.*

**Programaren helburuak**

Aurkezpen ekitaldian adierazi zutenez, programa honek euskal enpresak nazioarteko lehiarako prestatzea du helburu. Jose Mari Ulazia Gestio Eskolako zuzendariak esan zuenez, "programa honek eskolaren helburu estrategikoei aurre egiteko balio du. Enpresetan gestioa hobetzeko, alegia". Bestalde, ESPC-EAPko zuzendariak, Marco Fernandezek adierazi zuen, "profesionalei ezagutzak garatzen lagunduko die programak, baita inguru globalago eta lehiakorragoan lan egiteko prestatzen ere".

# no a ALDATU diren gauzak!




*Udaleko artribategiko argazkia*

**1933.** urtean begira nolakoa zen Elgoibarko herria. Zer nolako aldaketa jasan duen 68 urtetan. Herri txikitxo bat izateko, ordea, biztanle kopuru altua zuen garai hartan. Orduko erroldak dionez, 5.328 lagun bizi ziren Elgoibarren, oraingo erdia, gutxi gorabehera. Inguruetan ere gaur egun baino baserri gehiago zeuden. Argazkia ikusterakoan konturatuko zineten bezala, artean ez zegoen Sigmako fabrikarik. Arraroa ere egiten da Elgoibar Sigmarik gabe imajinatzea, ezta? Hona hemen erretratuan ikus ditzakegun 5 leku ezagun:

1. Pilar Ikastetxea.
2. "Forjas de Elgoibar" enpresa.
3. Loiola tailerrak.
4. Gabilondo fabrika: pistolak egiten zituzten bertan.
5. D. Antonio Arrillagaren klinika.



**2001.** urtean zeharo aldatuta dago herria. Urteen poderioz eraikuntza asko eta asko desagertu egin dira. Batzuk oraindik ere zutik daude eta ezagunak egiten zaizkigu, baina inguruko paisajea guztiz desberdina dela inork ezin du ukatu.

Juanito Gorostiza

hartzen badituguʔ

Galizia
" ** H. 7 loo.
Gosariarokin. Uztollson.
29,000
ptiumt,c,,,20.

Tenerife
"** histela 7 you prabli artian.
llopooldno
Uztolok 0,15 oto tro.
(1. hotrro Oolianw
59.900
Ptsdprtsastko. (htsek aparte)

Tijek,LA
*** Hatela. 7 gao gosarlarsklii
Negatidna Ifilbottk.
Ilztolok 10,17 eta 24a.
63.900
Ptifprtsonstat (tasak eta tosatuak Asarte)

Mallorca
*** Hatela. 811111 pontrie
llegazklni Gastelztlk.
Urtallak 12, 18 eta 20a.
liondarizaka 1. lerroan.
41.500
Pta./pertsonako.

Praga
*** Hotela. 7 goo gosorlosola
Itooarkina
Uztallok 0, 15* eta 22*o.
(* 0.000 pto gebtago)
513.5CDO
Ptalperbaub. flassk apartc)

Sizilla
* ** Hottli. 7 pontolo osoan.
IlztolfooL konooloolifIbotik.
1413.650
PLL/portaulto, ffouguPartol

Prezio onak baino askoz ere gehiago

EROSKi BIDAIAK

SAN BARTOLOME, 11 TEL. 94$ 744 95(

Orujoarekin egindako olioak kanizerra sor dezakeelako merkatutik kentieko agindu dute

# OLIOAREN KALITATEARI EMATEN AL DIOZU GARRANTZIARIM ?



### URRATEGI ALZIBAR

**39 urte, irakaslea**

Noski baietz. Beti berdina erosten dut, markarekin fidatzen naizelako, eta oliotan ez diot diruari begiratzen, jangairik inportanteenetakoa delako.

### ELENA EGUREN

**32 urte, administrari laguntzailea**

Bai, beti oliba olixua erosten dot, eta zenbat eta garestixaua izan orduan eta hobia dala uste dot. Batez ere, gustuan igartzen dot. Fuertia da onena.





### GORETI ANTUNEZ

**26 urte, etxekoandrea**

Bai, olioak gorputzerako beharrezkoak diren sustantziak dituelako bai haurrentzat eta baita helduontzat ere. Nik etxean ez dut orujo olioa erabiltzen.

### JOSE GARCIA

**33 urte, peoia**

Bai, oliba biijina erabiltzen dut beti, naturala hobea delako. Kontserba latak ere oliba ofiodunak erosten ditut piska bat gehiago ordaindu behar bada ere, olio begetalak alde batera utziz.





### PELLO ETXANIZ

**35 urte, komertziantea**

Bai, asko. Lagun batzuk Extremaduratik edo Nafarroatik ekartzen didate olioa. Jatorrizko produktuek goxoagoak izateaz gain, kalitate hobea izaten dutelako.

### FELIPE BARBERO

**45urte, produkzio arduraduna**

Bai, baina gustua hartzen dut kontutan kalitatea baino gehiago. Oliba dut gogoko, entsaladetarako batez ere. Orujo olioa sekula ere ez dut probatu.



AHOLKULARITZA

KONTAB1LITATE
LAN
FISKAL

Kalarnua, 12 • ELGOIPAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

jiIE.111(
rIARTFORD
ASEGURUAK

OIERKI 1GOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

`E" 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea • 20600 EIBAR

# futbolean gogor

Telebistaren laguntzaz eta publizitate piska bat eginez asko aurreratuko litzatekeela pentsatzen dute, "Europako beste herrialde batzutan, adibidez, nesken futbol partiduak telebistaz botatzen dituzte. Mutilei ematen zaien adinako atentziorik ez dugu eskatzen, kirol bat baino gehiago pasio bat baita, baina nesken futbolak ere badu zeresanik".

**"Jende askok oraindik ez daki neskak futbolean jokatzen dugunik ere. 'Neskek ez dakite futbolean jokatzen" eta antzeko esaldiak oraindik entzuten dira"**

ADINA: 20 urte
JOKATUTAKO TALDEAK: Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN: 13 urtetatik
POSTUA: Ezker aldeko erdilatia
ESPERIENTZIA SELEKZIOETAN
Gipuzkoa, Euskadi edo Espainiako selekzioekin jokatu du. Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketa irabazi zuen 2000. urtean. 18 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin Europako txapeldunordea izana da.



## Gero eta nesken talde gehiago

Gero eta neska gazte gehiago animatzen direla esan digute. Eibarren duela 13 urte sortu zen nesken futbol taldea. Lidia Fernandez hasieratik egon da bertan eta gogoan ditu taldea osatzeko hasieran zituzten arazoak. Gaur egun, berriz, ia herri gehienetan ari dira nesken futbol taldeak sortzen. "Eibartarrak" taldeak, adibidez, erregional mailako taldea aterako du datorren urtean. Gainera, gazteenek gero eta hobeto jokatzen dutela aipatu digute. "Orain oso gazterik hasteko aukera dute eta hori abantaila bat da. Gutariko asko 18 edo 20 urte baino gehiago genituela hasi ginen futbolean jokatzen".

i • LI MATE* -'



ADINA: 29 urte
JOKATUTAKO TALDEAK
Urki eta Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN:
19 urterekin hasi zen.
POSTUA: aurrelaria
ESPERIENTZIA SELEKZIOETAN
Hirurekin jokatu izan du. Euskadiko selekzioarekin 2 aldiz irabazi du Espainiako Txapelketa. Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketan 3. geratu zen 1999an. Guztira 25 aldiz izan da intemazionala eta 15 gol sartu ditu.

## Futboletik bizi

Euskal Herrian ez dago futboletik bizi den emakumerik. Profesional bakarrak Levantekoak dira. "Egunero entrenatzen dute eta hori igerri zen euren kontra jokatu genuenean, fisikoki gu baino hobeto prestatuta zeuden-eta. Guk astean 3 aldiz entrenatzen dugu lan egin edo ikasteaz gain". Euskal futbolean dirua falta bada ere kalitatea sobran dagoela gaineratu digute. "Behin baino gehiagotan irabazi du Euskadiko selekzioak Espainiako txapelketa, azkena iaz, eta beti aurrean ibiltzen dira". Estatu Batuetan neskek mutilek adina irabazten omen dute futbolean, "Hala ere, Estatu Batuetakoa beste kontu bat da, futbolari ona izateaz gain, modelo itxurakoak bilatzen baitituzte. Dena ikuskizunarekin eta publizitatearekin lotuta dago"

ADINA: 24 urte
JOKATUTAKO TALDEAK
Elgoibar eta Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN
16 urterekin hasi zen
POSTUA: Erdilaria
ESPERIENTZIA SELEKZIOETAN:
Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketa irabazi zuen 2000. urtean eta Espainiako selekzioak aurten deitu du lehen aldiz.

ITZIAR GURRUTXAGA



# Herriko neskak




ADINA
26 urte
JOKATUTAKO TALDEAK
Elgoibar eta Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN
23 urterekin hasi zen
**POSTUA**
Erdilaria




ADINA
29 urte
JOKATUTAKO TALDEAK
Urki eta Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN
16 urterekin hasi zen
POSTUA
Ezkerreko hegalekoa




ADINA: 17 urte
JOKATUTAKO TALDEAK
Eibartarrak
NOIZTIK FUTBOLEAN
13 urterekin hasi zen
POSTUA
Erdilaria
**ESPERIENTZIA SELEKZIOETAN**
Euskadiko selekzioarekin jokatu izan du eta datorren astean Espainiako selekzioarekin jokatuko du.

*Orain dela 8 urte sortu zen nesken futbol taldeo Elgoibarren. Duela 4-5 urte, berriz, futbolean aritzen ziren neskei buruzko erreportaje bat kaleratu genuen BARRENeko orrialdeetan. Nesken futbola jaloberria eta ezezaguna zenez, berrikuntza moduan aurkeztu genizuen. Orain 8 urte hasitako lanak eman ditu fruituak jadanik eta aste honetako erreportajean goi mailcrka futbolariak izango dira protagonistak. Izan ere, Eibarko "Eibartarrak" futbol taldean jokatzen duten 6 neska elgoibartarrek Espainiako Nesken Futbol Txapelketaren hna-la jokatu dute aurten. Horietatik lauk, gainera, Espainiako se-lekzioarekin jokatu izan dute. Futbol munduan egin duten ibil-bideaz eta nesken futbolaz berba egin dugu guzliekin.*

**Espainiako Txapelketako txapeldunorde**

lisabeth Ibarra, Yoli Mateos, Lidia Fernandez, Evelyn Santos eta Ruth eta Itziar Gurrutxaga ahizpek "Eibartarrak" futbol taldean jokatzen dute. "Eibartarrak" inguruko nesken futbol talde onenetarikoa da eta aurten Espainiako Nesken Futbol Txapelketako txapeIdunordeak izatea lortu dute. Levante taldearen aurka 4 eta 0 galdu zuten finala Valentzian. Dena den, finalera ailegatzeko lan handia egin zuten aurrez. Lehenik Euskal Herriko Zonaldea deituriko ohorezko mailan txapeldun izatea lortu zuten. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko taldeek osatzen dute zonaldea. Espainiako Txapelketako finala Levanten jokatu zuten 4.000 ikusleren aurrean. Galdu arren oso gustura daudela aitortu digute, "gure helburua finalera ailegatzea zen. Levanteri irabaztea oso zaila zela bagenekien, profesionalak dia-eta. Askok sekulako egurra emango zigutela pentsatzen zuten, baina nahiko ondo moldatu ginen". Irabazleak Europako txapelketan parte hartzeko eskubidea duela aipatu digute, "Bigarren atera arren, trofeo zistrin bat ere ez ziguten eman. Dena dela, kasuandadez irabazi izan bagenu ezin izango genuke Europan parte hartu, biajietarako diru asko bihar haita".

**Diru eta iikusle gehiago**

Nesken futbolak aurrera egin edo anakasta izan dezan zer behar den galdetu diegunean, denak ados daude dirua aipatzean. Dirulaguntzez gain, partiduak ikustera jende gehiago joatea ere eskertuko luketela esan digute, "Jende askok oraindik ez daki neskak futbolean jokatzen dugunik ere. Neskek ez dakite futbolean jokatzen eta antzeko esaldiak oraindik entzuten dira, nahiz eta ziuraski nesken arteko futbol partidu bat sekula ikusi gabekoak diren horrelakoak esaten dituztenak".

2001-VII-6


Bilbao Expresseko langilea

# Bidalatzeko

## HA1NBAT AHOLKU

*Udako oporrak hartuta izango dituzue batzuk eta besteak jai egunetan pentsatzen ariko zarete edo bidaia prestatzen. Urrutiko herrialdeetara joateko asmoa dutenentzat hainbat gomendio eta argibide eman dizkigu Bilbao Exprees bidaia agentziako Pilar Herrerok.*

**111 Txertoak:** Ertamerikara edo Afrikara joaten den jendeak txertoak hartzea komeni da. Beharrezkoena sukar horiaren aurkako txertoa da.

**Maleta:** Bi lagun edo gehiago joanez gero, arropak banatu eta maleta bakoitzean bestearenak ere sartzea komeni da. Gero eta ohikoagoa da denbora tarte txikiengatik maletak galtzea. Bakarrik joanez gero, eskuko poltsa batean beharrezko gauzak eraman.

**Agiriak:** Espainiatik kanpora joateko pasaportea eta nortasun agiria eraman. Europan NANarekin nahikoa da. Bestalde, bidaia txartela aldean eraman edo hotelen batean egonez gero, segurtasun kutxan utzi.

**Dirua:** Dolarrekin edozein lekutara joan zaitezke. Baina lurralde ezberdinak bisitatzeko asmoa duenak, hobe du dirua aurrez aldatuta eramatea, bestela bi aldiz ordaindu beharko ditu komisioak.

**Janaria eta edariak:** Herrialde beroetan botilako ura edan, eta barazkiak beti egosita.

**Internet:** Kanpo Arazoetarako Ministeritzak duen web orrian herrialde askori buruzko informazioa aurki daiteke: www.mae.es


VIAJES 31LBRO

BIDA1A AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA

Foruen enparantza, 3 · Tel: 943 74 39 12


- Madalako bizilagun bat etorri zaigu erredakziora bertako **obrak hobeto itxi** beharko lituzketela esanez: "San Juan Egunean batzuk gasolinarekin jolasean ibili ziren bertan eta arriskutsua dago".

- Ama gazte bat etorri zaigu BARRENera **Uxuaneko parkean dagoen** zuloagatik kexatzera: "Nire umeak horkatila okertu du duela gutxi. Eta nire semeari gertatu zaion bezala, beste ume askori gertatu zaie gauza bera. Ez da hau zalatzen dudan lehen aldia eta Udalera ere zuzendu izan naiz, baina zuloak bere horretan jarraitzen du oraindik. Neuk ipini behar badut ere, azulejoa jartzeko prest nago, baina ezin da horrela laga, oso arriskutsua baitago bertan ibiltzen diren haur eta helduontzat".





# eskutitzak

2001-VII-6

**SEVILLATIK**

Kaixo BARREN astekaria!

Ni Elizabeth Horeas naiz. Elgoibarkoa naiz baina orain Sevillan nago bizitzen. Euskaldun berria naiz eta aspalditik ez dut idatzi euskaraz.

Ia-ia astero jasotzen dut BARREN astekaria (hemen Sevillan), eta den-dena irakurtzen dut. Oso-oso ondo iruditzen zait "Arigera" egiten ari dena. Adibidez, euskaldun zaharrek euskaldun berriekin euskaraz hitz egitea. Irakurri nuenean pena eman zidan hr ez eotea, nire euskara ez ahazteko eta gehiago ikasteko. Txalo handi bat nire partez, horrela bai ikasten da euskaraz, denok zatitxo bat pini behar dugu.

Bestalde, Zorionak BARREN astekariari ere. Ondo egiten duzue eta niretzako primeraz, ze astero jakiten dut ea zer gertatzen den nire herrian. Batzuetan BARREN oso berandu iristen zait, baina internetetik ikus dezaket. Eskerrik asko.

Sevillatik, Elgoibarko zatixo bat.

Elizabeth Horeas


ASTEKARIA
BaRRen

Nafarrea enpara ntza, 2
20970 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitafea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maira:
barren@topagunea..corn
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ADGITARATZAILEA
Elaumatko Izatra

ELGOIBARKO,IZARRA

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru KAZETARTAK Irati Agirreazaldegt Asier Orbea PuoLorrATEAAndoitz Aginegomezkona MAKETATZAILEA Bea Ansola ADIAINISTRAZOA Afilala Rodrigez GkaskrrEA Jon Peli Uriguen. KOLABOAATZAILEAK Annia Lanz, Unai Argarate, Egulkine Aranberri, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez,Aitor Zabalela, Leire Urkidi, Olga Unzilla, MontseArregi, Juamto Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gumbaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Koloe K.E. ela Urruzuno L.T. AZALEKO ESALDIA Gutzon GSfale INPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TIDADA 4.000 DIA LEGE GOADAIWA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlarinako Kulatra Sailak eta Farrt Aidandiak diruz lagundutako aldizkaria*



kutxa

hpANolyvy LSGOITI
GRUPO P111403.1

df" ESTAMTA


## tlIDIR111

• Madalako etxe berrietako bizilagun batek galdera hau egin digu: "Bizitzeko baimena eman dute, baina ez dago oinarrizko segurtasu neurririk. Alde batetik, kalea ez dago argiztatua eta bestetik, erreka ondoko barandila falta da. Nolatan eman dute baimena gauzak horrela egonda?"

Guk Udalera jo dugu eta honako hau erantzun digute: "Oraindik 4. eta 5. blokeei eman zaie bizitzeko baimena eta argiak guztiei baimena emandakoan ipintzen dira. Barandauaren inguruan, berriz, promotorak obrak amaitu behar ditu lehendabizi, argiekin bezala, Udala lanean hasi ahal izateko".

## Urruzunoren begi ezkutua



Mutil txikia San Bartolome kaleko bidaia agentziaren eskaparateari begira dago. Adi-adi, begiak irten beharrean begiratzen die bidaia eskaintzei. "Handia naizenean Ameriketara joango naiz" pentsatzen ari da beharbada bere baitan. Edo, "lana daukadanean Europan zehar ibiliko naiz" ideia darabil buruan. Edota, agian, munduari bira ematea amesten du. Ilusioak gogoan, haurrak etxerako bidea hartu du, noizbait ametsak betetzeko esperantzaz.

Jon Eugi



## Gora San Ferrnint.

Hasi dira 2001eko San Ferminak. Txupinazoaren hotsak eta gora San Fermin hitzek hasi dituzte jaiak urteroko legez. Gaurkoan Portland San Antonioko presidenteari tokatu zaio txupinazoa jaurtitzeko ohorea. Une hunkigarri horretan iruindarrek zapi gorriak lepora lotu eta bederatzi egun iraungo dituen lasterketa hasi dute. Iruindarrez gain asko eta asko izan gara eguerdiko hamabietan Iruñean gertatzen zena jarraitu dugunok, askok penaz bertan ez izateagatik. Beste zenbait, aldiz, jadanik Iruñean daude edo lruñerako bidean. Izan ere, munduan jai batzuk ospetsuak badira, horiek San Ferminak dira. Iruñeako kaleek urtero-urtero hamaika tokitatik iritsitako jendea hartzen dute, askok jaiak ezagutu ez eta arrisku handia sortzen dute, batez ere entzierroetan. Espero dezagun aurtengo jaietan ezbehar gehiegi ez izatea eta egun gutxi batzuz bada ere, ikusentzunezko zein idatzizko komunikabideetan San Ferminetako giro alaiak tarte garrantzitsua hartzea. Berri beltzik ez bada biharko hainbat egunkaritako portadetan Iruñako plazak eguerdiko hamabietan zuen itxura ikusiko dugu. Hemendik, besterik ez, eta joango zaretenok ondo-ondo pasa.

Cr, (1.) O O N •

Leire Urkidi



## I oporrak

Bai, maite ditut oporrak, gustukoak ditut, zoragarriak dira. Atsegin dut irteera momentuaren aurreko egunetako agobioa, agobioen artean, agobio goxoena, dudarik gabe. Atsegin dut irteera orduaren aurreko egunetako estresa, estresen artean, estres goxoena, dudarik gabe........ nora joan, noiz joan, tokirik bai? dirurik bai? gogorik bai? BAI, NOSKI Maletan sartu beharreko "elementu" guztien zerrenda zehatza egin, argazki kamera prestatu, bixitatu beharreko herrialdeko "Trotamundos"a erosi, "Guia Camping 2001" eskuratu, bidaiarako cd, casette, musika berriak erosi........ zein ote da gutako bakoitzaren 2001. udako abestia? "opor zoragarriak pasa ditzazuela" dioen abesti berri-zaharra agian? Ondo ibili, ondo pasa eta ahh........ eraman aterki txiki tolesgarri horietako bat........ badaezpada.

Eguzkiñe Aranberri

Kexak ........................................ 5
1110tZ MotZ ........................................ 10
gehigarria ........................................
kiRolAk ........................................ 20
aGencla ........................................ 24


ZELETA
BARAZKIAK
NEKOZORITIP TUDIZIONOLO ata BOBESTfifi
Kalitatezko produktuak
ortutik mahaira zuzerman
BIETA BASERMA • San Migel auzoa (Elgoibar)


ZEZEN-BIDE
AUTO-ESKOLA
Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak
%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin
Sab Frantzisko — Teh 43 74 27 20 —,ELGOIBAR eEgo=gain 2•behea- sarrera S. Andres — Tel: 94320,34 45 — EIBAR

# GREMIOEN GIDA

(=LnJ 4rjnT. .112Tr2ĳ gar,31111iiITTicumig rrJ9121}41 ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
1T 943 74 31 16

**GAIRCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
w 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
131 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
s' 943 74 03 96

## DUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
s' 943 74 30 94

## ZMR\r-c)MI

**ASENSIO ARTETXE**
Azpilgoeta, 16 MENDARO
'a 943 75 50 83
72 943 70 65 57

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
s' 943 74 17 61
s* 689 04 92 06

**ONGI**
Urasandi, 8
s' 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
71' 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
s' 943 75 50 62
15" 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
13. 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
s' 943 74 07 89
17 608 14 30 40

## RA

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
s' 943 74 04 40
607 74 04 40

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
s' 943 74 15 52
606 43 11 19-20

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
u" 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
s' 943 74 12 38

**BETI ARGI**
Errosario, 6
Tr 943 74 16 44

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
71 943 74 09 02
sl 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
irk 943 74 13 76

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
s' 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
re 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
s' 943 74 29 87
z' 679 19 77 47

**IPINTZA**
Trenbide, 25
72 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97

## 11tticamzaz

**JESUS M-4 GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
71 670 41 20 73